Bakarrizketen eta *stand-up*-en arloan sorkuntza aitortu eta sustatzeko asmoz, SGAE Fundazioak deialdi hau egiten du:

sgae ren Miguel Gila Umore Sariketa 2026

Sariketa hau da, zuzeneko ikuskizunen bitartez generoa hau garatzen laguntzen duten autoreentzat.

OINARRIAK

01 Parte-hartzaileak

Sariketara aurkez daitezke SGAEko bazkide guztiak, zeinahi dela ere haien herritartasuna, baldin eta kartelean umorezko bakarrizketen edo *stand-up*-en ikusizunik izan badute Espainiako lurraldean 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean. Onartuko dira egilekidetzan aurkezturiko ikuskizunak, baina, kasu horretan, egilekide guztiek izan behar dute SGAEko bazkide. Deialditik kanpo gelditukо dira SGAEko Zuzendaritza Batzordeko kideak eta SGAE Fundazioaren Patronatukoak.

Sariketa honetara aurkeztu nahi duen bazkideak ezinbestean bete beharreko baldintza izango du aurkezten duen ikuskizunak sortutako egile-eskubideak SGAEren bidez likidatuta eta ordainduta egotea. Baldintza hori ez bada betetzen ezingo da aurkeztu ikuskizuna inongo kategoriatan.

Aurkezten diren ikuskizunen egileentzat dira sariok, eta egileei emango zaizkie.

Hautagaiek beren kabuz eman dezakete izena, edo ikuskizun-ekoizleen bitartez.

02 Lehiatzen diren kategoriak

Kategoria hauetan emango dira sariak:

- **Miguel Gila umorezko bakarrizketa ikuskizunik onena.** Saria emango zaio lehiaketara aurkezten diren ikuskizunetan gehien nabarmentzen den egileari. Horretarako, baloratuko da kalitate artistikoa, originaltasuna eta publikoarekiko konexioa, baita umorea kritikarako edo arlo sozialerako tresna gisa erabiltzea ere. Umorearen arloan eskarmentua duela erakutsi beharko du autoreak.
- **Miguel Gila umorezko bakarrizketaren errebelazio ikuskizunik onena.** Egileak saria jasotzekotan, umore eszenikoan gora bidean doazen talentuak izan behar ditu ikuskizunak. Ikuskizunaren egileak ezingo ditu izan profesionalki hiru ikuskizun baino gehiago eginak.

03 Miguel Gila Ohorezko Saria

SGAEko bazkide bati emango zaio, ibilbide profesionala aitortzeko eta umoreari eta kulturari egindako ekarpen nabarmena ezagutzeko. Epaimahaiak proposatu eta emango du sari hori.

04 Sariak

Sariak banatzean, trofeo bat emango zaio kategoria bakoitzeko **ikuskizunaren egileari** ekitaldi publiko batean. Sariek ez dute diru ordainsaririk.

05 Epaimahaia

Saritutako ikuskizunak hautatzeko, epaimahai bat egongo da, umorearen, kulturaren eta arte eszenikoen arloan ospea duten bost profesionalez osatua.

Epaimahaiak eman gabe utz ditzake sari hauek edozein kategoriatan, iruditzen bazaio lehiaketara aurkezturiko ikuskizun batek ere ez duela saria emateko behar den adinako kalitaterik.

06 Izen-ematea

Parte hartzeko interesa duten egileek izena emateko inprimakia bete behar dute, SGAE Fundazioaren webgunetik eskuratuta (**www.fundacionsgae.org**), eta bidali **2026ko urriaren 28tik azaroaren 19ra (23:59ra arte)**. Ezinbestekoa izango da inprimaki elektronikoko eremu guztiak betetzea eta behar diren agiriak epearen barnean eranstea.

Ikuskizunen ekoizleek ere aurkez ditzakete hautagaitzak.

Irabazten dutenak gonbidaturik egongo dira hurrengo urteko sariketako epaimahaian egotera, betiere egoera pertsonal eta geografikoak horretarako aukerarik ematen badu.

07 Arau orokorrak

a) Parte hartzaileek, deialdi honetan parte hartzearekin, osorik onartzen dituzte oinarri hauek, orobat batzordearen erabakiak, eta baimena ematen diote SGAE Fundazioari informazioa zabaltzeko sariketari buruz, zeinetan irabazleen datu profesionalak eta/edo argazkiak txertatuko baitira.

b) Erreklamaziorik edo gatazkarik balego, bai parte hartzaileak eta bai erakundea Madrilgo Auzitegien jurisdikzioaren pean ezarriko dira, eta uko egingo diote egokitu lekiekeen edozein foruri.

Interesdunek mota orotako kontsultak egin ditzakete edo oinarri hauen gaineko informazio zabalagoa eskatu honako hemen:

artesescenicas@fundacionsgae.org

Tel. (+34) 91 503 68 00/25

www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

SGAEk Espainian eta atzerrian dituen ordezkaritza nagusiak eta egoitzak
(kontsultatu helbidea **www.sgae.es** gunean)

fundación sgae fundazioa